

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

147/2026 Foru Agindua, maiatzaren 29koa. Onestea Santiagoko nekazaritza azokako nekazaritzako elikagaien saltokiak eta ostalaritzako saltokiak esleitzeko 2026ko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 3ko 20/2025 Foru Dekretuaren bidez, Santiagoko nekazaritza azokarako nekazaritzako elikagaien eta ostalaritzaren salmenta postuak esleitzeko oinarri arautzaileak onartu ziren, bai eta 2025. urteari dagokion deialdia ere.

Nekazaritza Sailak asmoa dauka 2026ko uztailaren 25ean Santiago eguneko nekazaritza azoka tradizionala antolatzeko. Azoka egitearen helburu nagusiak hauek dira: hiriko biztanleei Araban lantzen, hazten, egiten eta transformatzen diren nekazaritza eta abeltzaintza produktuen ugaritasuna eta aberastasuna erakustea; landa eremuak garatzekoan nekazariak eta abeltzainek duten garrantzi soziala nabarmentzea, eta Arabako ingurune naturala babestea eta kontserbatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 3ko 20/2025 Foru Dekretuaren 5. artikulua xedatzen duenez, Santiagoko Nekazaritza Azokan nekazaritzako elikagaien salmenta postuak esleitzeko deialdi bakoitzean honako hauek zehaztuko dira: eskabideak aurkezteko epea eta lekua, aurkeztu beharreko dokumentazioa, azoka non, noiz eta zer ordutan egingo den, eskainitako lanpostuen guztizko kopurua, nekazaritzako elikagaien produktu motaren arabera eskainitako lanpostu kopurua, aplikatuko diren ekoizleak hautatzeko irizpideak eta irizpide bakoitzari dagokion puntuazioa.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta bat etorri Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, zeinak aldatzen duen ekainaren 30eko Diputatu Nagusiaren 152/2023 Foru Dekretua 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten duena, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Santiagoko Nekazaritza Azokarako nekazaritzako elikagaien salmenta postuak eta ostalaritza postuak esleitzeko 2026ko deialdia, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 3ko 20/2025 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera. Hona hemen xehetasunak:

a) Azoka non, noiz eta zer ordutan egingo den:

Santiagoko nekazaritza azoka EHUren Arabako unibertsitate campusean egingo da, 2026ko uztailaren 25ean, 8:00etatik 15:00etara.

b) Deialdiko postu motak:

a. Nekazaritzako elikagaien postuak: 50 postu. 2026ko deialdian ez da produktu motaren arabera partaidetza mugarik ezarri.

b. Ostalaritzako postuak: ostalaritzako postuak jartzeko, 4 toki prestatuko dira guztira. Salbuespen gisa, toki gehiago prestatu ahal izango dira, baldin eta nekazaritza azokaren kokalekuak eta jardueren banaketak postu gehiago jartzeko aukera ematen badute.

c) Eskaerak aurkezteko lekua eta epea.

Eskaera Nekazaritza Sailaren webgunean eskuratu ahal izango den inprimaki normalizatuan egin beharko da, eta hemen aurkeztuko da:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteizko, Laguardiako eta Laudioko ogasun bulegoen erregistroan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, 39/2015 Legearen 14.2 artikulua arabera, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, elkargo bateko kide izan behar duten jarduera profesional batean dihardutenek (jarduera profesional hori dela-eta egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako) eta administrazioarekin harreman elektronikoa izateko betebeharra duen interesdun baten ordezkariak telematikoki aurkeztu beharko dute, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/santiago-eguneko-nekazaritza-azokan-parte-hartzea>).

Eskaerak aurkezteko 10 egun balioduneko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Hasierako epea amaitu ondoren ere onartu ahal izango dira eskaerak, baldin eta jasotako eskaerekin ez badira bete erabilgarri dauden nekazaritzako elikagaien postu edo ostalaritzako postu guztiak.

d) Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskaerarekin batera, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen eta konpromisoak beren gain hartzen dituztela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da.

e) Ostalaritzako lanpostuei aplikatu beharreko tasa publikoa:

2026ko Santiagoko nekazaritza azokarako ostalaritzako saltokiak esleitzeko ez da tasarik ordaindu behar.

f) Nekazaritzako elikagaien salmenta postuei aplikatu dakizkiekeen hautaketa irizpideak eta dagokien puntuazioa:

1. enee-ekolurraren merkaturatu nahi den produktu motarako Nekazaritza Ekologikoko Eragileen Zentsuan izena emanda egotea: 10 puntu.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko kalitate bereiziko elikagaiak merkaturatzea: Jatorri Deitura Babestua (JDB), Adierazpen Geografiko Babestua (AGB) edo Espezialitate Tradizional Bermatua (ETG): 10 puntu.

3. Euskadiko zigilua edo berme marka duten elikagaiak merkaturatzea (Eusko Label edo Euskal Baserri bereizgarriak): 10 puntu.

4. Nekazaritza ustiategiaren edo jarduera eraldatzailearen titularra emakumea izatea edo, hala badagokio, jardueraren sozietate titularrean gutxienez ehuneko 50eko partaidetza izatea, bazkideak bi badira, edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan: 15 puntu.

5. Nekazaritza ustiategiaren edo jarduera eraldatzailearen titularra 41 urtetik beherakoa izatea edo, hala badagokio, jardueraren sozietate titularrean haren partaidetza gutxienez ehuneko 50ekoa izatea: 10 puntu.

6. Hautatzen den produktu motarako, Araban helbidea duen nekazaritza ustiategi bakarra izatea: 10 puntu.

g) Ostalaritzako lanpostuei aplikatu beharreko hautaketa-irizpideak:

Onartutako eskabideen kopurua eskuragarri dauden ostalaritza postuen kopurua baino handiagoa bada, hautaketa zozketa publiko bidez egingo da. Zozketa egiteko lekua, eguna eta ordua interesdunei jakinaraziko zaizkie.

Bigarrena. Administrazio bidea amaiera ematen dion foru agindu honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Foru Agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 29a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA